

**BILBAO KIROLAK-INSTITUTO MUNICIPAL DE DEPORTES, S.A. ren KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK,
ERREGULAZIO BATERATUARI LOTUTA EZ DAUDEN KONTRATUETARAKO**

ATARIKOA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, aurrerantzean "SPKL", urriaren 30eko 30/2007 Legearen onespeneren ondorioz (2007-10-30eko BOEa), eta bertako amaierako hamabigarren xedapeneren arabera indarrean jartzearen ondorioz, erakundeen kontratazio-prozeduren erregulazio berri bat egin da, eta erakunde horiek, honako hau bezalaxe, **administrazio publikotzat** hartzen ez badira ere SPKLren 3.2. artikulua arabera, sektore publikoa osatzen dute, SPKLren 3.1. artikuluan adierazten denaren arabera, eta **ahalmen adjudikatzailea** dute, SPKLren 3.3.b) artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Hori dela eta, SPKLren 175.b) artikuluan xedatzen da **Administrazio Publikoen izaera ez duten botere adjudikatzaileen** organo eskudunek jarraibide batzuk onartu beharko dituztela, eta barne-esparruan derrigorrez bete beharko direla; jarraibide horietan arautuko dira kontratazio-prozedurak, halako eran non bermatuta geldituko den publizitatearen, konkurrentziaren, gardentasunaren, isilpekotasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioen eraginkortasuna.

Horretarako, ezinbestekoa izan da Erakundearen Administrazio Kontseiluak, uztailaren 24ko bileran, arau hauek onartzea, "Kontrataziorako Barne Jarraibideak" izenez, aurrerantzean "**Jarraibideak**".

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

1. art. - Eremua

Erakundeak hirugarrenekin egindako kostu handiko kontratuen kontratazio-prozedurak arautzea da jarraibideen helburua, edozein dela ere horien izaera juridikoa, honako kasu hauetan izan ezik:

a) SPKLren 4. artikuluan adieraziak diren eta erakundeari eragiten dioten negozioak eta harreman juridikoak.

b) erregulazio bateratuaren mende dauden kontratuak, hau da, lan-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, baldin eta horien balio estimatua SPKLn ezartzen diren eta I. Eranskinean zehazten diren (SARA mota) zenbatekoen berdinak edo handiagoak badira, izan ere, horien adjudikazioa SPKLren 174. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Jarraibideak derrigorrez bete beharko ditu Erakundeak, publizitatearen, konkurrentziaren, gardentasunaren, isilpekotasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatzeko xedez.

2. art. - Kontratuen izaera eta araubide juridikoa

- 1.- Erakundeak egindako kontratuak kontratu pribatutzat hartzen dira, SPKLren 20.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- 2.- Erakundeak egindako kontratuen prestakuntza eta adjudikazioa Jarraibideen, SPKLren eta horren garapen-xedapenen arabera arautuko da, eta ordezkoko gisa aplikatuko dira zuzenbide administrazioko gainerako arauak edo, bere kasuan, zuzenbide pribatuko arauak. Kontratuen ondorioei, betetzeari eta iraungitzeari dagokienez, kontratu horiek zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira.
- 3.- Bereziki SPKLren I. Liburuaren arauetara behatu beharko zaie (“Sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazioa eta kontratuen egiturazko osagaiak”), baldin eta beren edukia dela-eta entitateari aplikatu badakieke eta, modu berezian behatuko zaie kontratuen premiarik eta egokitasunari eta iraupen-epetari buruzko aginduei -22. eta 23. artikuluetan-, itunetarako askatasunari eta kontratuen gutxienezko edukiri buruzkoiei -25. eta 26. artikuluetan- edo kontratuen xedeari eta prezioari buruzkoiei -74. eta 75. artikuluetan-, eta horiez gainera, agindu teknikoaren eta pleguen prestakuntzari buruzko arauetara -121. artikuluan- eta administrazio publikoaren izaera ez duten botere adjudikatzailerik aplikatu ditzaketenei -175. artikuluan-.

3. ART. -Arbitrajea

Erakundeak egiten dituen kontratuen ondorioei, betetzeari eta iraungitzeari dagokienez sor daitezkeen gorabeheren konponbidea abenduaren 23ko 60/2003 Legean bilduta dauden xedapenen araberrako arbitrajearen mende jarri ahal izango dira (SPKLren 30. artikulua).

4. ART. - Jurisdikzio eskuduna

Jurisdikzio-ordena zibila izango da kontratuen prestakuntzari eta adjudikazioari buruzko auzigaiak konpontzeko eskuduna, eta baita kontratuen ondorioei, betetzeari eta iraungitzeari dagokienez sortutako gaietara buruzkoak konpontzekoa ere (SPKLren 21. art.).

2. ATALA. KONTRATUAREN HELBURUA

5. ART. - Kontratuaren helburua

1. Kontratuaren helburua, edozein dela ere, berariaz zehaztu beharko da pleguan.
2. Kontratu bat ezingo da zatikatu kontratuaren zenbatekoa beheratzeko eta publizitate-baldintzak edo dagozkion adjudikazio-prozedurari buruzkoak saihesteko helburuarekin.
3. Kontratuaren helburua zatika daitekeenean eta txostenean behar bezala justifikatzen denean, kontratuaren zati bakoitza modu independentean egitea aurreikusi ahal izango da, kontratua sortatan zatituta, baldin eta sorta horiek bananduta erabiltzeko edo aprobetxatzeko gai badira eta unitate funtzional bat osatzen badute, edo helburuaren izaerak hala eskatzen badu (SPKLren 74. art.).

6. ART. - Itunetarako askatasuna

Erakundeak edonolako itunak, klausulak eta baldintzak sartu ahal izango ditu, baldin eta ez badira interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren eta administrazio egokiaren printzipioaren kontrakoak (SPKLren 25. art.).

7. ART. - Prezioa

- 1.- Prezioak egiazkoa izan beharko du edo hura nola zehaztu finkatu beharko da, eta eurotan azaldu beharko da.
- 2.- Prezioa ale bakarreko prezioen bitartez edo oroharreko prezioan zehaztu ahal izango da.
- 3.- Pleguetan, prezioa modu librean berrikusi edo eguneratzeko klausulak ezarri ahal izango dira, SPKLren 77. eta 82. artikuluen bitartean ezarritakoari lotu gabe.
- 4.- Prezioa aldatzeko klausulak ezarri ahal izango dira, lortutako helburuen arabera.
- 5.- Kontratu ez betetzearen ondoriozko penalizazio-klausulak ezarri ahal izango dira.
- 6.- Kontratuen balio estimatua SPKLren 76. artikuluan adierazitakoaren arabera zehaztuko da.
- 7.- Ordainketen erregimena pleguan edo kontratuan zehaztutakoa izango da, aplikatu daitekeen araudian ezarritako mugen barruan, eta ez da aplikatu ahal izango SPKLren 200. artikulua.

8. art. - Kontratuaren iraupena eta luzapena

Erakundeak egindako kontratuen iraupena ezartzeko kontuan hartu beharko dira: zerbitzuen izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta horien gauzatzea aldiari aldiari konkurrentziarekin jartzeko premia.

Kontratuek luzapen bat edo gehiago aurreikusi ahal izango dituzte, baldin eta bere ezaugarriak ez badira aldatzen horiek irauten duten bitartean eta adjudikaziorako konkurrentzia kontratuaren gehieneko iraupena kontuan hartuta egin bada, luzapenaldiak barne.

Luzapena kontratazio-organoak hitzartuko du, eta derrigorrezkoa izango da adjudikaziodunarentzat, non eta kontratuak ez badu berariaz kontrakoa aurreikusten; ezingo da alderdien onespren isilpekorik egin (SPKLren 23. art.).

3. ATALA. KONTRATUAREN ZATIAK

9. art.- Kontratazio-organoak

1. Erakundearen kontratazio-organoak dira estatutueto xedapenaren kariaz kontratuak haren izenean egiteko ahalmena adjudikatuta dutenak eta, berariazko aipamenik ez badago, Administrazio Kontseilua izango da (*Patronatuaren Batzarra*).

2. Kontratazio-organoak beretzat gordetzen du kontratua interpretatzeko gaitasuna, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko, haren ebazpena eta ondorioak adostekoa, eta adjudikazio-prozedura jabegabe uztekoa, eta indarrean den legediaren arabera gauzatzen diren beste edozein eskubide, non eta ez diren interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren eta administrazio egokiaren kontrakoak, SPKLren 25. artikulua adierazten duenaren arabera.

3. Edonola ere, botereen esleipenaren edo ordezkatzearen ondorioz -Jarraibide hauen onspenarekin gauzatzat hartuko direnak-, erakundearen kontratazio-organoa erakundearen Lehendakaria izango da edo helburu horretarako organo ordezkaria, halakorik balego, eta Kudeatzailetza edo Zuzendaritza Nagusia, I. Eranskinean zenbatekoaren arabera banaketari jarraituz.

10. art. -Kontratazio Batzordea

Administrazio Kontseiluak Kontratazio Batzorde bat izendatuko du bere baitan, eta honako hauek osatuko dute: erakundearen Lehendakaria edo hark ordezkaria emandako kontseilaria, ordezko kontseilaria, halakorik balego, beste kontseilari bat -sei hilabeteko aldiatarako, txandakakoa-, erakundearen Kudeatzailea edo Zuzendaria, erakundearen arduradun tekniko bat eta idazkari bat.

Kontratazio Batzordeak honako funtzio hauek beteko ditu:

- Lehendakariari edo Zuzendari Nagusiari 300.000 eurotik gorako balio estimatua duten pleguen eta lan-esleipenen proposamena egitea, eta 100.000 eurotik gorakoa, gainerako kontratuetan.

- Berariazko kontratazio-prozedurak baimentzea, kontratuaren ezaugarrien arabera, adjudikazio zuzenen eta negoziatuen kasuan izan ezik.
- Batzordearen funtzionamendua arautzea:
 - Idazkaria ez balego, elkartearen Zuzendari Nagusiak beteko ditu haren funtzioak, eta nahikoa izango da Idazkaria edo Zuzendari Nagusia egotea, Kontratazio Batzordearen jarduerak baliozkotzat emateko.
 - Kontratazio Batzorderako deialdia posta bidez, telefono bidez edo posta elektronikoko bidez egin ahal izango da, gutxienez 24 ordu lehenago.
 - Kontratazio Batzordea pleguen proposamena onartzeko deituko da; plegu horiek Lehendakariari edo Zuzendari Nagusiari zuzenduko zaizkio, izapideak egin ditzan. Kontratazio Batzordeak ahalmena emango dio Lehendakariari edo Zuzendari Nagusiari, pleguen proposamenaren gainean funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko, hala badagokio.
 - Kontratazio Batzorderako deia egingo da, Lehendakariari edo Zuzendari Nagusiari aurretik zuzendu zaizkien eskaintzen adjudikazio-proposamena Lehendakariari edo Zuzendari Nagusiari zuzentzea onartzeko.
- Jarraibide hauetan azaldutako beste batzuk.

11. art. -Kontratuaren arduraduna

Kontratazio-organoek, SPKLren 41. artikuluekin bat eginez, kontratuaren arduradun bat izendatu dezakete; haren erantzukizuna izango da kontratua betetzen den gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar bezala egiten dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak ematea.

12. art. -Kontratastaren gaitasuna

Baldintzen pleguek zehaztuko dute zeintzuk diren erakundearekin kontratatzeko debekuak. Edonola ere, ezingo dira kontratista izan SPKLren 49.1. artikuluan ezarritako egoeraren bat duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Plegu horietan zehaztuko dira gaitasun- eta kaudimen-baldintzak, eta baita horiek frogatzeko modua ere. Kontratazioaren zenbatekoa dela-eta, ez bada beharrezkoa Baldintzen Plegu bat osatzea, hau da, 50.000 eurotik beherako balio estimatua badute, eskaintzaren eskaeran zehaztu ahal izango dira kontratuaren helburuaren arabera beharrezkotzat jotzen diren baldintza guztiak.

Erakundeak pleguetan ezartzen dituen baliabideen bitartez egiaztatu ahal izango dira jarduteko gaitasuna eta kaudimen teknikoak edo profesionala, ekonomikoa eta finantzarioa.

4. ATALA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA ETA ADJUDIKAZIOA

13. art. - Lizitaziorako eta adjudikaziorako prozedura

- 1.1. Erakundeak prozedura irekia, mugatua edo hitzartua erabili ahal izango ditu, eta azken hori publikitatearekin edo gabe.
- 1.2. Elkarrizketa lehiakorra eta proiektuen lehiaketa SPKLn kontratu administratiboetarako ezarritako moduan erabili ahal izango dira, eta erakundearen izaera juridikoaren berezitasunetara egokitu beharko dira.
- 1.3. Gainera, SPKLn ezarritako edozein kontratazio-teknika erabili ahal izango da, hala nola esparru-hitzarmena, erosteko sistema dinamikoa eta enkante elektronikoa.
- 1.4. Prozedura irekian, enpresaburu interesdun orok aurkeztu ahal izango du proposamen bat. Prozedura mugatuan, berriz, erakundeak eskaintza-eskakizunaren bitartez hautatutako enpresaburuek baino ezingo dute proposamenik aurkeztu. Prozedura hitzartuan, azkenik, erakunde kontratatzaileak jasotako eskaintzen artean hautatutako enpresaburuari adjudikatuko zaio kontratua, edo gai diren gutxienez hiru enpresari aurretik eskaintzak eskatuta, baldin eta hori posible bada.
- 1.5. Jarraibide hauetan ezarritako kopuruetan, ez da BEZari dagokion kopurua sartutzat hartzen.
- 1.6. Kontratazioaren prozedura orokorrak, kontratu bakoitzaren klausula administratiboen pleguetan garatuak, honako hauek izango dira, kontratuaren zenbatekoa zer tartetan dagoen kontuan hartuta:

A) 50.000 eurotik beherako balio estimatua duen edozein kontratu.

A) 50.000 eurotik beherako balio estimatua duten lanetan, edo 18.000 eurotik beherako kasuetan, kontratuak zuzenean jarduteko gaitasuna duen eta zerbitzua egiteko prestaketa profesionala duen edozein enpresabururi adjudika diezazkioke kontratuak, SPKLren 95. artikuluan ezarritako arauak beteta betiere.

Lanetakoak ez diren 18.000 eurotik gorako balio estimatua duten kontratuen kasuan, gutxienez hiru eskaintza eskatuko dira, eta hori posible ez balitz edo ez balizateke komenigarria izango, idatziz jasoko da.

B) 300.000 eurotik beherako balio estimatua duten lanetan edo 100.000 eurotik beherakoak, gainerako kasuetan.

Prozedura hitzartu bidez adjudikatuko zaizkie, aurretik kontratuaren helburuarekin zerikusia duen jarduera-sektoreko gutxienez hiru enpresa gaituei, posible den kasuetan, eskaintzak aurkezteko berariazko gonbita egin ondoren, eta Kontratazio Batzordeari horren berri emanda.

Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak biltzen dituen baldintza-plegu bat egin beharko da aurretik: aldaketak onartzeko erregimena, eskaintzak hartzeko moduak, adjudikazio-irizpideak, bermeak, agindu teknikoak, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak, epeak eta

zigorrak. Gainera, kontratu horiei buruzko informazioa kontratua gauzatu baino lehen argitaratuko da, Erakundearen kontratatzailearen profilean, deskribapen txiki batekin eta adjudikazio-metodoarekin batera.

C) 4.845.000 eurotik beherako balio estimatua duten lanak, SPKLren II. Eranskineko 1etik 16ra bitarteko kategorietan bildutako hornidura eta zerbitzuak, 193.000 eurotik beherakoak bi kasuetan, eta aipatutako kopurutik gorako erregulazio bateratuari lotuta ez dauden gainerako kontratuak.

Prozedura ireki, mugatu edo hitzartu bidez adjudikatuko dira, azken hori Legeak baimendutako kasuetan, aurretik onartutako klausula administratiboen pleguen eta agindu teknikoen arabera.

Kontratazio Zerbitzua izango da lizitazioaren baldintzen pleguen onespena zein kontratuaren adjudikazioa Lehendakariari zuzentzeko arduraduna, kontratazio-organoa den aldetik. Larrialdietan, behar bezala justifikatuz gero, pleguak eta deialdia kontratazio-organoak onartuko ditu zuzenean, horren berri Kontratazio Batzordeari emanaz, ahalik eta lasterren.

14. art. - Publizitatea

Publizitatearen printzipioaren eskakizunak betetzat hartuko dira, baldin eta Erakundearen Kontratatzailearen Profilean sartzen bada, jarraibide hauetan xedatutakoaren arabera, 50.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuei buruzko informazioa, alde batera utzi gabe egokitzen diren beste baliabide batzuen erabilera, eta SPKLren 153-159. artikuluetan eta 161. artikuluan bildutakoaren artean publizitate kanpo gelditzen diren kasuetan izan ezik.

15. art. - Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa

Pleguetan zehaztuko da zer agiri aurkeztu behar dituen lizitatuzaile bakoitzak.

16. art. - Proposamenen aurkezpena

Interesa dutenen proposamenak pleguan aurreikusitakora egokitu beharko dira, eta aurkezteak adierazten du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza horien guztien edukia, salbuespenik edo erreserbarik gabe. Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakarria aurkeztu ahal izango du.

Kontratazio-organoak zehaztuko du lizitazioaren iragarkian eta pleguetan zeintzuk diren eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak hartzeko epeak. Parte hartzeko eskaerak eta eskaintzak hartzeko epeak finkatzean, Bilbao Kirolak erakundeak modu berezian hartuko du kontuan kontratuaren konplexutasuna eta eskaintzak prestatzeko behar den denbora.

Lizitatuzaileek aldagaiak edo hobekuntzak eskaintzeko aukera lizitazioaren iragarkian eta kontratuaren pleguetan adieraziko da, eta zehaztu egin beharko da zer osagaitan eta zer baldintzatan baimentzen den horien aurkezpena.

17. art. - Behin-behineko eta behin betiko bermeak

Erakundeak pleguan ezartzen dituen bermeak, behin behinekoak edo behin betikoak, eskatu ahal izango ditu.

18. art. - Eskaintzak baloratzeko irizpideak

Kontratua adjudikatzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak kontratazio-organoak ezarriko ditu, eta pleguetan zehaztuko dira; horietan mugatuko da, halaber, bakoitzari egotzitako haztapen erlatiboa.

Erakundearentzat alderdi ekonomikotik onuragarriena den eskaintzari adjudikatuko zaizkio kontratuak, kontuan hartuta pleguetan ezarritako irizpideak.

19. art. - Adjudikazioaren publizitatea

Kontratuen adjudikazioa pleguan ezartzen diren baliabideak erabilia jakinaraziko zaie hautagaiei edo lizitatuzaileei, halakorik balego.

Kontratatuzailearen profilean sartuko da 50.000 eurotik gorako balio estimatua duten kontratuen adjudikazioari dagokion informazioa, SPKLren 153-159 artikuluetan eta 161. artikuluan publizitate salbuetsita dauden kasuetan izan ezik.

Hiruhileko bakoitzaren amaieratik zenbatzen hasita eta hogeitun eguneko epean, erakundea atxikita dagoen Ordezkaritzara eta Udal Kontu-hartzailetza Orokorreara bidaliko da lanen, zerbitzuen eta horniduren kontratazio-txostenei buruzko informazioa, eta bertan bereizi egingo dira erregulazio bateratuari lotuta dauden subjektuak eta hala ez daudenak, eta azken horren barruan, bereizi egingo dira gastu txikiak gainerakoetatik.

20. art. - Kontratuaren formalizazioa

Oro har, derrigorrezkoa izango da kontratuak formalizatzea 50.000 eurotik gorako balio estimatua duten lanetan edo 18.000 eurotik gorakoetan, gainerako kasuetan.

Kontratuaren formalizazioa, ezingo dena ahoz egin -larrialdiko kasuetan izan ezik (SPKLren 28. art.)-, agiri idatzi bidez gauzatuko da 15 egun naturaleko epean, behin betiko adjudikazioaren jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

21. art. - Gardentasuna

Lizitazio-iragarkian esleitu behar den kontratuari eta adjudikazio-metodoari buruzko funtsezko xehetasunen deskribapen laburra egingo da, eta baita adjudikazio-organoarekin harremanetan jartzeko gonbita ere. Hala behar izanez gero, Kontratatzaillearen profileen eskura dagoen informazio gehigarriarekin osatuko da, edo aurretik esleipen-organoari eskatuta.

22. art. - Isilpekotasuna

Erakundeak ezingo du enpresaburuek isilpekotzat eman duten informaziorik zabaldu; ezaugarri hori bereziki dagokie sekretu teknikoei edo merkataritzaren alorrekoiei eta eskaintzen isilpeko alderdiei.

Kontratistak errespetatu egin beharko du kontratuaren gauzatzea dela-eta ezagutu ahal izan duen informazioaren isilpekotasuna, pleguetan edo kontratuan ezaugarri hori eman zaionetan, edo informazioaren izaera dela-eta halakotzat hartu behar denean. Eginbehar hori bost urteko epean gordeko da, informazio hori ezagutzen denetik zenbatzen hasita, pleguek edo kontratuak epe luzeagoa ezartzen dutenean izan ezik (SPKLren 124. art.).

23. art. - Berdintasuna eta bereizkeriarik eza

Erakundearen deialdiak, lizitazioak eta kontratuak baldintza berberetan egongo dira interesdun guztien eskura (SPKLren 123. art.).

24. ART. - Indarrean jartzea

Jarraibide hauek Administrazio Kontseiluak (Patronatuaren Batzarrak) onartu ondoren jarriko dira indarrean, Jarraibideak onartzen direnean abian jartzen diren kontratazio-prozeduretarako.

Lehendakariaren edo Zuzendari Orokorraren esku uzten da jarraibide hauek garatzeko gaitasuna, eta horiek etorkizunean onar daitekeen legedira egokitzea.

I. ERANSKINA
KONTRATAZIORAKO OINARRIZKO ESKEMA

	Prozedura	Baldintzen plegua	Eskaintzen eskaera	Lizitazioaren publizitatea	Adjudikazioaren publizitatea	Kontratuaren formalizazioa	Batzordearen proposamena
	Zuzeneko adjudikazioa	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ
	Zuzeneko adjudikazioa	EZ	BAI	EZ	EZ	BAI	EZ
	Hitzartua	BAI	BAI	BAI, SPKLren 153-159 artikulua eta 161. artikulua izan ezik	BAI (Kontratatzailearen profila, SPKLren 161. artikulua izan ezik)	BAI	EZ
	Irekia edo mugatua (SPKLren arabera hitzartua)	BAI	Ezin da aplikatu	BAI (Kontratatzailearen profila)	BAI (Kontratatzailearen profila)	BAI	BAI
	Irekia edo mugatua	BAI	Ezin da aplikatu	BAI (EBAO eta kontratatzailearen)	BAI (EBAO eta kontratatzailearen)	BAI	BAI

(SPKLren arabera hitzartua)			profila)	profila)	
-----------------------------------	--	--	----------	----------	--